2015eko URRIAREN 25a , BASAURI
ANTOLATZEN DU: K-3a KIROLAK

LAU ZUBIKO XVII, KLASIKA
BASAURI-ZARATAMO-ARRIGORRIAGA-BASAURI
DISTANTZIA: 11902m

ORDUTEGIA:
11:00 LASTERKETA IRTEERA
11:40 LEHEN SAILKATUAREN HELDUERA
12:15 LASTERKETA-AMAIERAREN HELDUERA
12:30 SARI BANAKETA

LAU ZUBIKO XVII KLASIKOARI BURUZKO ARAUDIA

1. **Artikulua-** 4 zubiko XVII. Klasikoa 2015eko Urriaren 25ean ospatuko da. Proba hau bi sexuetako kirolariengana irekita dago, nazionalitate bereizketarik gabe, proba egunean 17 urte beteak izanik. PARTE-HARTZAILEEN KOPURUAREN MUGA 600 LASTERKETARIETAN EZARTZEN DA.

2. **Artikulua-** Probak herriko izaera du, hots, parte-hartzeko lizentzia ez da beharrezkoa. Herriko lasterketa izanik, probaren antolakuntza, parte-hartzaileak lasterketa ondorioz izan ditzaketen osasun arzoen arduradun ez da egiten . Hau dela eta, lasterkariei erantzukizuna eskatzen zaie eta ALDEZ AURREKO OSASUN-MIAKETA GOMENDATZEN DA.

3. **Artikulua-** Ibilbidea 11902 metrokoa izango da. Irteera goizeko 11:00-etan emango da Artunduaga-ko kiroldegitik, eta helmuga kiroldegi berean jarrita egongo da.

4. **Artikukua-** Parte-hartzaile guztiak inskribatzeko unean, araudi hau onartzen dute.

5. **Artikukua-** Izen-emate-kuota **CHIP.arekin 11 €-etan** ezartzen da atletismo-federatuentzat, **12 €-etan** atletismo-ez-federatuentzat izen ematea aldez aurretik egiten bada eta **15 €-**etan probako egunean egiten bada. Izen-ematea www.sailkapenak.com web-orrian egingo da. LASTERKETAK CHIP-en BIDEZKO KRONOMETRAJE-SISTEMA DAUKA. Erabateko sailkapena emakume eta gizonezko taldeetan ezarriko da, sailkatutako 3 lehen emakumeentzat eta sailkatutako 3 lehen gizonentzat saria egongo da, era berean, bertako lasterketarien lehenengo 3 salikatuentzat ere garaikurra egongo da bai emakume zein gizonezko mailan.

6. **Artikulua-** Izen-emateak 2015eko Irailaren 1etik, Urriaren 24ra arte egin daitezke. Parte-hartzaile guztiak zenbakia hartzerakoan, probakren oroitzapenezko oparia jasoko dute. Zenbakien bilketa Artunduaga-ko Kiroldegian egingo da 2015eko Urriaren 25ean, 8:45-etatik 10:30-etaraino. Probaren argazkiak www.festak.com web-orrian agertuko dira urriaren 30etik aurrera.

7. **Artikulua-** Antolaketa zirkuituaren seinaleztapen egokiaren arduraduna izango da. Parte-hartzaileek udaltzaingoaren eta trafikoa arautzeko antolaketak izendatutako pertsonen seinaleak errespetatu behar dituzte.

8. **Artikulua-** Probaren garapenari buruzko auzirik egotekotan antolaketa izendatzen duen komisioa konpetentea izango da soilik.

9. **Artikulua-** Medikuak edozein parte-hartzaile lasterketatik atera dezake, honek bere osasuna arriskuan jartzen duela uste badu.

10. **Artikulua-** Antolaketak jarritako kolaboratzaileengandik kanpo, behar bezala seinaleztatuta joango direnak, debekatuta geratzen dira laguntza autoak eta bizikletak edo lagunkideak.

11. **Artikulua-** Zenbakia bular ondean eramango da ikusgai eta antolaketak emango dituen 4 kateorratzez lotuta.

12. **Artikulua-** Antolaketak ezetza ematen die proba honek parte-hartzei zein beste pertsona batzuei eragin ditzakeen min, kalte edo lesioengatik erantzunkizun guztiei, halaber hirugarren pertsonek parte-hartzaileenganako ka|kaltea eragiten duten kasuan.

13. **Artikulua.-** Antolaketak Erantzukizun Zibileko asegurua zein parte-hartzaile bakoitzeko instripu aseguru indibiduala kontratatuko du.

14. **Artikulua-** Inskribatuta egon gabe korrika egiten duten pertsona guztiak bere erantzukizunpean egingo dute.

15. **Artikulua- PARTE-HARTZAILEEN ERANTZUNKIZUNAK**. Antolaketa ez da arduratzen parte-hartzaileak izan ditzaketen kalteen ondorioz, zein bere materialen hondatze eta galeraren ondorioz sortu daitezkeen kexa edo eskariei erantzuna emateari.Lasterketan izena emandako parte-hartzaileek ulertzen dute lehiaketan borondatez parte hartzen dutela eta bere erantzukizunpean. Beraz, gabetzen dute, uko egiten dute, salbuesten dute eta ados daude entitate antolatzailea, kolaboratzaileak, babesle eta, beste parte-hartzaile batzuk ez salatzen lasterkari eta bere oinordekoenganako erantzukizun zibil guztiei buruz.

16. **Artikulua- DATUEN TRATAMENDUAREN ERANTZUNKIZUNA ETA HELBURUA**. Izaera Pertsonaleko Datu-Babeseko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetzean, informatzen dizuegu izen-emate-formularioa betetzearen bitartez ematen dituzuen datu pertsonalak E3D-fitxategi erantzukizun baten parte izatera pasatuko dira. (hemendik aurrera "antolaketa"). Fitxategi hau emanaldiaren kudeaketarako, parte-hartzaileen izen-ematearen antolaketarako, zenbaki banaketaren kudeaketarako, lasterkarientzako aseguruen kudeaketarako, lasterketarien markak komunikabideetan argitaratzeko, argazki eta parte-hartzaileen irudiak komunikabideetan argitaratzeko, fakturaziorako eta oro har kirol ekitaldi bat antolatzeko beharrezkoak diren helburu guztientzako erabiliko da.

17. **Artikulua-** Parte-hartzaile guztiek, parte hartzaile izateagatik eta izen-ematea ordainduta izanda, araudia hau betetzeko konpromisoa hartzen dute. ANTOLATZAILEAREKIN ZERIKUSIRIK GABEKO ARRAZOENGATIK PROBAREN EDOZEIN ETENDURAREN AURREAN (Eguraldi arrazoingatik edo Autoritate eskuduneko inposaketagatik, etab.), ez da izando izen-emate-kuotaren itzultzerako eskubidea.